

B

BARREN

Elkartasuna Nepalgo herriarekiko

Mani Bhadra Kandel, Sharmila Khadka
eta Dipendra Khattri

TOKIKOM





LEIRE ELGARRESTA Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduko lehenengo maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultatean. 'My Gade' modalitatean dagoen ikasleetako bat da Leire. Hiru egunez Fakultatean ikasten du, eta beste biak Danobat enpresan ematen ditu, finantza arloko praktikak egiten.

“Enpresako praktikak lehen mailatik egin ahal izatea, etorkizunerako aukera ezin hobea da”



• Zergatik aukeratu zenuen Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?

Betidanik argi izan dut Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasi nahi nuela eta etorkizunean enpresa batean lan egitea gustatuko litzaidakeela. Gainera, enpresa ikasketak burutzeak, enpresa munduko arlo ezberdinetan lan egiteko aukera ematen du, nahiz eta finantza arloa den gehien gustatzen zaidana. Beraz, ez naiz damutzen hartutako erabakiaz.

• Zure kasuan, gainera, lehenengo mailatik enpresa batean praktikak egiten ari zara, aurrean hasi den 'My Gade' (Ikasle batzuek lehen mailatik hasita gradu osoan zehar egiten dituzte praktikak) modalitate berriaren barruan. Zehazki, Danobat enpresan ari zara. Konta izaguzu zer moduzko esperientzia izaten ari den.

Modalitate berri hau oso aukera ona dela iruditzen zait. Izan ere, enpresan praktikak eginez gauza asko ikasten dira. Esan bezala, ni Elgoibarko Danobat enpresan nago eta asko eskertzen diet aukera hau eman izana. Izan ere, oso baliagarria egiten ari zait. Bertan administrazioa eta finantza departamentuan nabil, gehien gustatzen zaidan arloan, hain zuzen ere.

Hasiera batean, hainbat kezka nituen buruan: eurek nigandik espero dutena ez jasotzea, praktika faltarengatik hainbat akats egitea, une oro nire gainean egon behar izatea... Baina orain, beldur horiek guztiak uxatu zaizkit. Izan ere, eskuak zabalik hartu ninduten lehenengo egunetik eta eskaini didaten gertutasunak eta nire ikasketekiko inplikazioak enpresara motibatuta eta ikasteko gogoz joatea dakar.

“Eskuak zabalik hartu ninduten lehen egunetik Danobat enpresan”

• Zer moduz daramazu Fakultateko ikasketak eta praktikak biak aldi berean egitea? Nola antolatzen zarete?

Enpresan lanean hasi baino lehen, zaila da dezente nituen ea bide egokia aukeratu nuen eta gai izango ote nintzen praktikak ikasketekin batera egiteko. Hasieratik jakin izan dut ez zela erraza izango eta esfortzu handia suposatuko zuela, eta hala da; batez ere azterketa garaian. Antolaketa dago biak eramangarri egiteko gakoa. Askotan zaila egiten zait ondo antolatzea, denbora gutxitan gauza asko egin behar ditudalako.

Hala ere, zaila izan arren, badakit aukera hau ezin hobea dela nire etorkizunerako, eta orain kostatzen ari bazait ere, badakit esfortzu honek ondorio oso onak izango dituela niretzako.

• Nola definituko zenuke MONDRAGON UNIBERTSITATEAn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Mondragon Unibertsitateak duen ikasketen metodologia inguruan ez dut kexa handirik. Ondo antolatuta daudela uste dut, eta irakasleek ikasleekiko duten jarrera ere nabarmentzekoa da. Gradu honetan, beste batzuetan bezala, talde-lanak garrantzi handia duela iruditzen zait, eta hori dela eta, oso interesgarriak iruditzen zaizkit orokorrean egin ditugun talde-lanak. Gelakide desberdinekin lan egitea enpresako lankideekin lan egitea bezala da.

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskutitzailearen Toponimia

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibarko
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Hitz batzuk psikiatrikoez

Beldurra,
pertsonon gaineko kontrol osoa
zigor etengabeak edozein huskeriagatik,
hutseratzen gaituen medikazioa arauen bat
hausten dugun aldiro.

Bakartzea,
herritik irteteko beldurra behin sendagiria jaso
ostean ere,
terapia psikologiko baliogabeak lehenengo arraia
hartzen den egunetik
Zigorren zazpi hilabetetako luzapena droga
kontsumoagatik.
Korridore ilunak,
gaixo kronikoak,
eta adinekoak gainetik paseatzen,
bost metro luzeko hesiak, hiltzen ari nintzeneko
patioa inguratzen.

Torturatutako lagunak,
Gizon bat bi urtez eskuak bizkarrera lotuta
dituela, psikiatrari eraso egiten saiatzeagatik,
zazpi egunez ohera lotuta, gainean droga era-
mateagatik,
urtebetez kalera irteteko debekua ohera lotu zu-
ten pertsona horri berari.
ihesaldietan prostituzioan aritzen diren putak.
kalean hazitako umeak psikiatrikoan 11 urte zi-
tuztenetik,
biziarteko kartzela zigorra familiarik gabekoen-
tzat, eta hainbat lagunuen suizidio kasuak han
egin nuen egonaldian.

Zaldi bat banintz bezala baretzen ninduten,
baina aldi berean, aktibo egotera behartzen nin-
duten, kalera irteteko neuzkan bi ordu horiek
kenduko zizkidatela mehatxu eginda. Nik lo egi-
tea nahi nuen bakarrik. Hainbat bikotekide izan
nituen haiekin harreman fisiko txikiena izateko
debekupean. Nik sexua eta maitasuna baino ez
nituen behar. Ez nion gehiago eskatzen bizitzari.
Ez nuen gehiago behar harengandik. Lo egitea
eta maitasuna besterik ez. Besterik ez.

J.A. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Atzo estrenatu zuten 'Itsasoari Begira' dokumentala Elgoibarko Herriko Antzokian

Dokumentalaren aurkezpenean Udaleko ordezkariak eta protagonistak batu ziren

Atzo iluntzean estrenatu zuten *Itsasoari Begira* dokumentala Herriko Antzokian. Aurkezpen ekitaldian Udaleko ordezkariak, Zesatenjuenaz ekoiztetzeko arduradunak eta dokumentaleko protagonistak batu ziren. Gaixotasun neurologikoa dutenen eguneroko bizimodua azalerratu nahi du dokumentalak, eta lehenengo pertsonan landu gaia. Itxaso da protagonista, gaixotasun neurologikoa duen neska. Maier Gurrutxaga elgoibartarren alaba da Itxaso. Lau hilabete zituela atzeman zioten medikuek gaitz neurologikoa, eta horrek eraginda egunerokoan dituzten zailtasunak jaso dituzte dokumentalean.

Luze jo du egitasmoak, eta bidean oztupo bat baino gehiago gainditu behar izan dituzte arduradunek. Zailtasunen artean, arazo ekonomikoei egin behar izan diete aurre, eta horretarako diru-bilketa



kanpaina bat egin zuten. Arduradunek esandakoaren arabera, elgoibartar askok hartu dute parte kanpaina horretan, eta Elgoibarko Udalak emandako dirulaguntza ere garrantzitsua izan da proiektua gauzatu ahal izateko.

Momentuz Elgoibarren aurkeztu du-

te dokumentala, baina aurrera begira beste herri batzuetan ere eskaintzeko asmoa dutela aurreratu dute. ETBrekin ere harremanetan jarri dira telebistaz emateko aukerak aztertzeko, eta laburmetraia bat ere sortuko dute, ikastetxetean emateko.

Maalako gaztetxeari buruzko argazki erakusketa egingo dute bihar Maalako parkean



1986tik 1991ra bitartean Maalako parkean egon zen gaztetxeari buruzko argazki erakusketa antolatu dute biharko. Gaztetxea bota zutenetik 24 urte beteko dira bihar hain zuzen ere, eta Gaztetxe mugimenduaren bueltan ibili ziren hainbat herritarrek Maalako Gaztetxe hura gogora ekartzeko irudiak berreskuratu dituzte argazki artxibotik. Maalako parkean jarriko dituzte ikusgai argazkiak, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Jakinarazi dutenez, Gaztetxe hartan egiten zituzten ekintzak ikus daitezke argazkietan, baina argazki gehienak Gaztetxea hustu eta handik alde egitera behartu zituztenekoak direla nabarmendu dute.

Lehenengo lokal hura bota ostean, bigarren Gaztetxe bat ere egon zen Maalako parkean, Alcorta lantegia zegoen eraikinean hain justu ere, eta gerora, Jarbe lantegia zegoen enpresaren lokalean egon zen Gaztetxea.

Ekitaldia **Mendaroko pintxo lehiaketa**



Banatu dituzte Mendaroko pintxo lehiaketako sariak: Menditxo tabernako pintxoak irabazi du lehiaketa 7,20ko batezbesteko puntuazioarekin, eta irabazleek txapela, garaikurra eta diploma jaso dituzte. Txirristakako pintxoak sailkatu da bigarren, eta hauek garaikurra eta diploma eskuratu dituzte. Lagun Betikoak tabernak egin du hirugarren, eta diploma jaso du. Botua eman zutenen herritarren artean Menditxo tabernan gastatzeko 50 euroko bi erosketa bono zozketatu dituzte, eta Olga Pascual eta Paki rueda izan dira irabazleak.

Ekimena **'Txikimusika'**

Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren barruan, 'Txikimusa' egitasmoa antolatu dute Sinuotsek, Musika Bandak eta Musika Eskolak maiatzerako. Hortaz, maiatzeko igandetan etxeko txikienentzako musika ekitaldiak izango dira Elgoibarren. Lehenengoa domeka honetan izango da: Musika Bandak haurrentzako kontzertu berezia eskainiko du 12:30ean Herriko Antzokian. Musika tresnak erakutsi eta pieza ezberdinak joko dituzte musika banda etxeko txikienentzako gerturatzeko asmoz. Hilaren 17an Mursego musika talde eibartarrak kontzertua eskainiko du, eta astebete geroago, Mendaroko Munlet bikoteak. Hilaren 31n izango da azken saioa: Belceblues musika taldeak bluesaren jatorria azalduko die gaztetxoek.

Irudia **Gure Esku Dago**

Joste Egunean pintxo-potea antolatu zuten Elgoibarko hainbat tabernarik, eta bakoitzak bi pintxo prestatu zituen, herritarrek euren gustukoena aukeratu zezaten. Botoa eman zuten herritarren artean hiru afari zozketatu dituzte: Gabi jatetxeak eskainitako afaria Yolanda Liberalek irabazi du, Txarridunakoa Luis Berdoncesek eta Viento Surrekoa Begoña Gabilondok. Guztira 300 bat boto eman zituzten herritarrek.



Maiatzaren 16an jokatu da 'Plazatik Gaztetxera' bertso saioko Elgoibarko kanporaketa

Gaur hasiko da Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa Soroluzen, eta ekainaren 13an jokatu da finala Markinan. Guztira zazpi saio jokatu dira, eta Elgoibarko maiatzaren 16an izango da. 22:30ean hasiko da saioa, eta nahi duenak gaztetxean afaltzeko aukera izango du. Elgoibarko saioan ondorengo bertsolariek hartuko dute parte: Manex Astigarraga, Maddi Sarasua, Antton Aizpurua, Ainhoa Sarasua, Aitor Bizkarra, Txaber Ormazabal, Amaia Iturriotz eta Mikel Iturriotz. Txapelketaren jarraipena www.topatu.info webgunean egin ahal izango da.

IMSERSOren opor programan izena emateko epea zabaldu dute

IMSERSOren opor programan izena emateko epea ekainaren 5ean amaituko da. Interesatuak Udaleko Ongizate Sailean edo jubilatuen egoitzan hartu ditzakete izena emateko orriak.

Bidezko merkataritzaren denda jarriko dute bihar

Bidezko Merkataritzako taldeak denda jarriko du bihar, San Frantzisko kalean (Barrutia harategia egon zen lokalaren atarian). 10:00etatik 14:00etara egongo da.

Paella jana antolatu du CD Elgoibarrek

Futbol denboraldiari amaiera emateko paella jana antolatu du CD Elgoibarrek ekainaren 13rako. Hestebeteak, paella, postrea, kafea, kopa eta ardoa eskainiko dituzte, 15 euroan. Futbol eskolan dabilzan umeen gurasoek eta klubeko bazkideek hartu ahal izango dute parte. Interesatuak CD Elgoibarren lokalean eman beharko dute izena, ekainaren 8a baino lehen.

NEPALERA BEGIRA



Apirilaren 25ean lurrikara batek hondamendia eragin zuen Nepalen. Richer eskalan 7,5 graduko indarra izan zuen lehen astindu hark, eta txikizio handia eragin zuen. Katmanduko haranean izan zuen epizentroa, hiriburutik 150 kilometro mendebaldera, baina Indian eta Tibeten ere sumatu zuten haren eragina. Astindu haren atzetik, dozenaka erreplika izan zituzten gainera, eta horrek eta bitarteko faltak asko zaildu dituzte salbamendu lanak. Datu ofizialen arabera, 7.000 lagun baino gehiago hil dira, 14.000 baino gehiago zauritu eta milaka dira galdutakoak. Hondamendiaren ondotik, Debabarrenean bizi den nepaldarren komunitateko hiru lagunentzako testigantza ekarri dugu hona: Sharmila Khadka, Dipendra Khattri eta Mani Bhadra Kandel.

Ainara Argoitia



Dena galdu dute. Lurrak jan ditu. Ez dute jatekorik eta ezta edateko urik ere. Euria goian-behean dutela daude, hezurretaraino bustita, hondakinez eta hilotzez inguratuta. Horrenbeste gorpu inguruan dutela, izurrien beldur dira orain". Begiak busten zaizkio Sharmila Khadkari senide eta herrikidiez gogoratzen denean, eta ez da gutxiagorako. Apirilaren 25ean lurrak bere

herrialdea astindu zuenetik ez du etxekoekin harremanetan jartzeko modurik izan, hondamendiaren erdian argindar barik daudelako Sindhuplachok Jyamiren [hiriburutik 60 bat kilometrora dago], baina Katmandutik senide baten bidez iritsi zaizkion berriak etsigarriak dira: 12 urteko neba, 8 urteko ahizpa eta izeba bat hil zaizkio gutxienez hondakinek azpian hartuta, gurasoen berririk ez du eta amona eta osaba min



hartuta ditu. "Etxeko lehen pisuan zeuden berbetan denak lurrikara izan zenean. Korrika irten ziren etxetik dena amiltzen hasi zenean, baina nire nebari, esaterako, ez zion etxetik irteko astirik ere eman. Telebista ikusten ari zen bigarren pisuan". Sindhuplachok Jyamiren 15.000 etxe birrindu dira lurrikaran, "herri oso bat".

Khadrak esan du luze ari zaizkiola egiten egunak eta amaigabeak gauak. "Euri sasoi da, eta ez dute ez aterperik eta ezta aldatzeko arroparik ere". Apirilaren 30a da gaur, eta ohartarazi du bere herrira ez dela oraindik inolako laguntzarik iritsi. "Katmandura begira daude denak, hiriburura. Nazioarteko laguntza ere hara ari dira bidaltzen, eta inguruko herrietaz inor ez da gogoratzen", ohartarazi du. Facebooki eta telebistari begira ematen ditu orduak, albistegietan eta abarretan ikusten ari dena irentsi ezinda. "Inpotentzia ikaragarria da. Lehen ere ez zuten askorik han eta apur hori ere galdu dute. Negarrez ematen dute eguna. Urruti gaude gu, eta halako egoeretan are gogorragoa da hori. Nahi dugu lagundu, baina dirurik ere ez daukagu bidaltzeko. Zer egin ez dakigula gaude. 2.000 aldiz deitu diet honezkero etxekoei, baina mutu daude telefonoak". Hondamendiaz geroztik, debalde dute Nepalera deitzea, Nepalgo Gobernuaren erabakiz, baina irtenbide motza da hori.

Nazioartearen laguntza

Eta etsi-etsian, kalera irten dira gurean bizi diren Nepalgo komunitateko kideak, laguntza eske. Marritzen eta eguaztenean mahaia jarri zuten Eibarren, eta eguena Elgoibarren eman zuten. Diru-eskean irten ziren, laguntzeko modurik eraginkorrena horixe delako gaur gaurkoz. Dirua bidali, han bertan jatekoa erosi eta behar dutenei banatzeko. Baina ohartarazi dute denetarik behar dutela: estalkiak, arropak, mantak... "Herrietakoei lagundu nahi diegu, bestelako laguntzarik iristen ez den lekuetan bizi direnengana iritsi nahi dugu, Gurutze Gorriaren bidez", dio. Ez baitute fede handirik Nepalgo Gobernuarengan. "Korruptzio handia dago Nepal. Sekula ez dira garbi aritu eta orain nola nahi duzu haiengan sinistea?", bota du Dipendra Khattrik.

24 urte ditu Khattrik eta Elgoibarren bizi da joan deneko 11 hilabeteetan [Guztira lau nepaldar bizi dira Elgoibarren]. Arun Kdola Bazarrekoa da sortzez, Nayabehalini probintziakoa [Katmandutik 7-8 orduko autobusez], eta aitortu du "hondoa jota" dabilela egunotan. Zorionez etxeak ondo dituela esan du, Nayabehalini ez delako horrenbestekoa izan lurrikararen eragina, baina turismora iristen ez den herri galduak ditu gomutan: "Turistekin kezkatuta ikusten ditut denak, baina lurrikaran zortzi milioi lagun baino gehiago kaltetu dira. Nepalen lurra lantzetik bi-

zi dira gehienak. Uzta osoa etxean bertan gordetzen da eta urte osoan handik jaten du familia osoak. Orain, lurrikarekin, urte osoko jana galdu dute".

Herrialde pobrea da Nepal. 'Per capita' errenta 2.150 euro ingurukoa da urtean. "Eskola, medikura joatea... dena ordaindu behar da, eta gehienek ezin dute. Nepalgo Gobernuak diru asko egin du herritar pobreen kontura, baina sekula ez da kezkatu herritarrak non lo eginik ez dutelako edo ospitalera joan ezinagatik hiltzen direlako. Orain ere ariko dira nazioartekak borondate onenarekin biktimentzako eman duen giza laguntza euren modura banatzen!".

Bizimodu hobeago baten ametsak eraman zituen hirurak atzerrira, motxila bete beldur eta ilusio hartuta. "Lanik gabe, ezin genuen han bizi. Horregatik utzi genuen guk gure herria, gure seme-alabentzako etorkizun hobeago bat nahi genuelako. Inork ez du bestela bere herria uzten hizkuntza ere ezagutzen ez duen herri ezezagun batera joateko. Hala ere, oso eskertuta gaude euskaldunei. Aterpea, jatekoa eta gure seme-alabak eskolatzeko aukera eskaini digute. Hemen gauden nepaldar denon ametsa zera da: paperak eskuratzea, lan egin ahal izateko". 46 urte ditu Mani Bhadra Kandekek, eta orain hamalau hilabete iritsi zen Eibarrera, Danimarkatik pasata. Nawal Pransi barrutiko Gaida Kot 10 herrikoa da Brahva, eta sentimentu gazi-gozaok bizi ditu azken egunotan. Lasaitua hartu du Nepal bizi dituen etxeak ondo daukela jakin duenean, baina gertatutakoa handiegia da bere poza agertzeko. "Etxekoek esan didate eskatzeko laguntza herrietarako. Zorionez eurek bizirik daudela eta aterpea badutela, baina jende asko ezer jan gabe dagoela egunetan, euritan. Urgentziaz behar da laguntza. Janaria behar da, ura, arropak, mantak... Laguntza txiki bat asko da hangoentzat". Sharmilak dio euro bakarrarekin han hiru lagunek jaten dutela, egunean behin behintzat.

Egunotan kontu asko zabaldu dira Nepali laguntzeko, baina Gurutze Gorria zuzendu gaituzte eurek. Haiengan badute federik. Hondamendia gertatu zenetik hona jende ugari gerturatu zaiela esan dute eta nola eskertu asmatu ezinda ari direla aitortu dute [5.758 euro batu dituzte Eibarren, Elgoibarren eta Mendaron]. Elkarizketan zehar, behin eta berriz izan dituzte esker oneko berbak euskal herritarrenganako, baina Mani Bhadra ez dago beste behin esan gabe joateko. "Badakigu hemen ere jendea ez dela erraz bizi, krisiagatik-eta, baina hala ere, izugarri ari zaizkigu laguntzen. Hogeia euro, euro bat, bi zentimo... dena eskertzen dugu, hemen hori dirua izan ez arren, Nepalen asko delako. Eta aldi berean, batutakoa asko izanda ere, dena delako gutxi han orain. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko".



Elgoibarko Udalak 29.431,51 euroko diru-laguntza emango die herriko ikastetxeei

14/15 ikasturtean zehar garatuko dituzten hainbat egitasmo lagunduko ditu diruz Udalak

Elgoibarko Udalak 29.431,51 euroko diru-laguntza emango die herriko ikastetxeei, 14/15 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, Institutua eta Mekarekin sinatu dute hitzarmena Ongizate, Euskara, Gazteria, Berdintasuna eta Enplegu sailek. Diru laguntzaren banaketari dagokionez, Elgoibar ikastolak 8.112,31 euroko diru-laguntza jasoko du, Herri Eskolak 5.465,55 euro, Institutuak 9.410,88 euro eta Meka lanbide eskolak 6.442,77 euro. Hauek izango dira, besteak beste, Udalak diruz lagunduko dituen egitasmoak: Osasunaren Hezkuntza programa, ahoz-



kotasuna-bertsogintza egitasmoa, euskara sustatzeko jarduerak, motibazio saioak eta Gaztematika egitasmoa.

Diru-laguntza horiez gain, Udaleko Berdintasun Sailak eta Enplegu Sailak diru

partida bat izendatu dute eskoletan sail horien helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko. Aurtengo kopuruak hauek dira: Enplegu Sailak 4.700 euro eta Berdintasun Sailak 11.500 euro.

Carmen Hierroren argazki erakusketa jarri du ikusgai Ongarrik, Kultur Etxean



Ongarri argazkilari taldeak Carmen Hierroren erretratuak jarriko ditu ikusgai gaur Kultur Etxean, eta hilaren 23ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera. Lau argazki bildumen arteko elkarrizketa moduko bat izango da erakusketaren oinarria. *Hautzaroko etxea*, *Barne logika*, *Sakramentu bedeinkatuak* eta *Egonaldiak* izeneko bildumako argazkiak formatu txiki eta ertaineko eskulturekin uztartuko ditu, haurren munduaren gainean metafora bisual moduko bat eraikiz. Eskulturretan egurra, zeramika, haria, fieltroa edota espartzua erabiliko ditu, besteak beste. Carmen Hierrok Bartzelonako Unibertsitatean ikasi zituen Arte Ederrak, eta gero doktoregoa ere egin zuen. 2009-2010 urteen artean Photoespaña masterra egin zuen argazkilaritzan. 18:30ean inauguratuko dute erakusketa.

Gaur itzuliko da Kiribil, 17:30etik aurrera

Neguko etenaldiaren ostean, gaur itzuliko da Atxutxiamaikaren barraskilo erraldoia. Elgoibarko Izarraren aisialdi eskaintzaren barruan, transmisioan eragiteko egitasmoa da Kiribilka. 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa da. 17:30ean izango da gaurko saioa, Maalako parkean. Kiribilek abestia estreinatu du: *Ei, Kiribil!* Entzungai duzue www.barren.eus atarian.





Alkategaien hitza

Udal eta Foru Hauteskundeei tarte berezia eskainiko die **BARRENEK**, bai paperean eta baita Interneten ere. Paperean, hamar galderari idatziz erantzuten jarriko ditugu alkategaiak eta baietza eman dutenen perfilak ere argitaratuko ditugu. Elgoibarko alkategaien erantzunak irakurri ahal izango dituzue gaur, Mendarokoenak gaur zortzi, eta maiatzaren 22an argitaratuko ditugu perfilak.

Interneten, berriz, zuzeneko elkarrizketa digitalak egingo ditugu. Orubete izango dute alkategaiek herritarrek zuzenean egingo dizkieten galderari erantzuteko. Hala ere, orubete horretan ordenagailu aurrean egon ezin duten herritarrei ere galderak egiteko aukera emate aldera, galderak aurrez bidaltzeko aukera ere eskainiko dugu. Horretarako barren@elgoibarkoizarra.eus helbidera bidali behar dira galderak, zein alkategairentzako diren zehaztuta. Mendaroko alkategaiekin hasiko ditugu elkarrizketa digitalak datorren astean. Hilaren 12,13 eta 14rako lotu ditugu PSE-EE, EAJ eta EHBilduko zerrendaburuak. Elgoibarkoak, berriz, hilaren 18, 19, 20 eta 21erako lotu ditugu.

Hauteskunde kanpaina

Elgoibarren “aldaketaren beharra” ikusten dutenei bihar plazara agertzeko deia egin die EHBilduk talde argazkia ateratzeko

Bihar, maiatzaren 9an, hasiko du Elgoibarko EHBilduk hauteskunde kanpaina, Kalegoen plazan egingo duten ekitaldi publiko batekin. “Aldaketaren bidean” EHBilduko zinegotziek urrats bat egin dutela nabarmendu dute prentsa ohar bidez, eta norabide horretan pausoa eman nahi duten herritarrek dei egin diete bihar plazara agertzeko. Kalegoen plazan talde argazkia atera nahi dute eta parte hartzera animatu dituzte herritarrek. 12:00etarako jarri dute ordua eta aurreratu dute bertsolariak, musika eta mokadu bat egiteko aukera ere izango dela.

EAJk kafe baten bueltan aurkeztu zuen joan zen astean Elgoibarko Udala kudeatzeko osatu duen lantaldea

Maiatzaren 24an egingo diren udal eta foru hauteskundeei begira, *Zatoz Elgoibarko plazara* izeneko ekitaldi politikoa egin zuen joan zen eguaztenean Elgoibarko EAJk. Jeltzaleen alkategai Ane Beitiak Elgoibarko Udala kudeatzeko aurkeztu duten lantaldea aurkeztu zuen jendeaurrean, kafe baten bueltan egin zuten ekitaldian. Lantaldea aurkezteaz gain, legegintzaldi berrirako dituzten asmoen berri ere eman zuen Beitiak. Bide batez, Felisa Bergaretxe joan zen apirilaren 19an 100 urte bete zituen emakumea omentzeko ere baliatu zuten ekitaldia. Ekitaldian, Markel Olanok, Joseba Egibarrek eta Arantza Tapiak ere parte hartu zuten.



ANE BEITIA - EAJ



1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?

Orain lau urte gure programan agertutako proiektuak martxan jarri ditugu pausoz-pauso helburuak lortzeko. Proiektu horiek ildoak markatu dizkigute. Gure oinarria eta helburua beti Elgoibar eta elgoibartarrak dira. Horregatik, eta herritarren ongizatea helburu izanda, lan-ildoak jarraitu ditugu. Gaur egun daukagun egoera ekonomikoak ere, ez digu malgutasun handirik utzi helburu horiek bere osotasunean lortzeko, baina bidea jarraitu dugu, eta arlo guztietan izan dugu aurrerapausoa. Zerbitzuak eta azpiegiturak hobetu dira; Elgoibar dinamizatu da, gizarte eta kultura-eskaintza zabalak ditugu; kirol ekipamenduak ere herritarren beharretara egokitu dira; gizarte politikan ere kalitatezko zerbitzua dugu, gertutasuna eta tratu pertsonalizatua ematen dutenak; gazteekin lankidetzara oinarriak ezartzen hasi gara; ingurumenarekin ere errespeta jokatu da, hondakinen kudeaketa egokia bultzatu da, eta jarraituko da; enplegua eta prestakuntza bultzatzen dituzten proiektuetan parte hartu da...

Arlo horietan guztietan berdintasuna kontuan izan da. Eta noski, euskararen jakintza, transmisioa eta erabilera ere bultzatu dira.

2. Zein izango da zuen hautskunde programaren zutabe nagusia?

Elgoibar dugu oinarri eta helburu. Herritarren ongizatea zaindu nahi dugu, eta horretarako, euren beharrak ezagutu eta elkarlanean erantzuna ematen saiatuko gara. Herritarrengandik gertu-gertu egon nahi dugu, eta orain arte egin dugun bezala, etorkizunerako ildoak markatu eta zuzen jarraituko dugu.

3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak ezagutzeko, haiei erantzuteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko?

Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da, bai. Bukatzen ari den legealdi honetan, ordenantza ere landu dugu. Prozesu parte-hartzaileak ere izan ditugu: nerabeen lokalen erabilera arautzen duen ordenantzarena, adibidez. Prozesu hartan, inplikaturik egon daitezkeen hainbat kolektibok parte hartu zuten, eta nire ustez, emaitza eraginkorrak eman zituen.

Orain gutxi ere, Aita Agirre eraikina berreraikitzeko, kultura eta euskara eragile guztiekin beste parte-hartze prozesu bat egin da.

Udal zerbitzu guztietan ere, herritarrak harreman zuzena izaten du bere kezka, zalantzak, kezak... ezagutarazteko. Badaude, gainera, *Elgoibar Zainduz* bezalako aplikazioak, herritarrak inplikatzeko dituztenak. Baina horietaz guztietaz gain, entzule ona naizela uste dut, eta kezka eta iradokizun guztiak entzuteko prest naukazue, bai kalean aurrez-aurre, bai beste edozein bidetik.

4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarrak. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?

Gure ekonomia iturri "potenteena" industria da; horregatik, tokiko industria hemen gera dadin lan egingo dugu. Baina industria erakargarria nahi dugu, ezagutzaren ihesa murrizteko.

Bestalde, langabezia datuek diotenez, kualifikatu gabeko pertsonak dute proportzio altuagoa. Horien lanerako prestakuntza bultzatu behar dugu. Horregatik, egiten dakigun horretan eraginkorrak izateko prestakuntza indartu behar dugu. Hezkuntza eta prestakuntzarekin zerikusia duten ekintzak bultzatuko ditugu. Era berean, komertzioarekin eta ostalaritzarekin ere inplikaturik gara.

5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitze-ko eskubidea, hein batean Gure Esku dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzue esateko honen inguruan?



“Elgoibar dugu oinarri eta helburu, eta herritarren ongizatea zaindu nahi dugu”

Erabakitze eskubidea agenda politikoan indar handiz sartu da, bai. *Gure Esku Dago* mugimendua, egia esan, gogor ekiten ari da. Badira urte batzuk Ibarretxe Lehendakaria erabakitze eskubidea aldarrikatzen hasi zela. Batzuei gutxi iruditzen zitzaion, beste batzuei lekuz kanpoko, batzuek errotat hartuko zuten, beste batzuek estrategia zela esango zuten, baina enbidea bota zuen, eta bidea mahai gainean jarri zuen.

Erabakitze eskubidea herrien eta herritarren eskubidea da, eta gure alderdiak betidanik aldarrikatu du eskubide hori; DNAn daramagu.

6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesu hori azkartzeko?

Elkarbizitarako bidean pausoak ematen hasiak gara, baina oraindik gauza asko ditugu bidea egiteko. Elkarrizketa da nire ustez bidelagunik garrantzitsuena; albokoa entzuten jakin behar dugu, izan garena barnerrazten, eta edozein motatako indarkeria baztertzeko. Gure herriak eta herritarrok elkarbizitarantz aurrera egin nahi dugu; onarpenean, errespetuan eta tolerantzian oinarritutako elkarbizitarantz.

7. Euskarak eta euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendetan?

Euskarak eta euskal kulturak pisu handia izan dute eta daukate gure agendetan. Euskara arlo guztietan kontutan izan behar dugu. Euskararen jakintza maila ona badugu ere, hizkuntzaren transmisioa eta erabilera bultzatu behar ditugu; euskara etxean, eskolan, kalean, kirolean, kulturean... arlo guzti guztietan erabilera bultzatu behar dugu. Udal zerbitzuetan ere, eta, batez ere, herritarrarenganako tratu zuzenean euskararen erabilera bultzatu behar dugu.

“Aurreko hauteskundeetan emaitza onak lortu genituen eta orain ere hori espero dugu”

“Entzule ona naizela uste dut, eta kezka eta iradokizun guztiak entzuteko prest naukazue”

Ezagutzen ez duenari ere bidea erraztu behar diogu eta euskara ezagutu dezan lagundu. Eta noski, euskal kultura, hizkuntza bezala, arlo guztietan txertatu behar dugu.

8. Nolako udal gobernua aurreikusten duzu?

Aurreko hauteskundeetan emaitza onak lortu genituen, eta orain ere hori espero dugu. Orain arte egindako lana ere hor dago. Ondo egindako lana izan da gurea, eta guk horretan jarraitzeko asmoa daukagu.

9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?

Eragile asko dira herrigintzan dihardutenak; horretan aberatsak gara benetan. Lehen esan bezala, Elgoibar dinamizatu eta dinamizatzailea daukagu. Herritar guztiak eta elkarte guztiak eragiten dute dinamismo hori, asko dira herrigintzan parte hartzen dutenak.

Administrazio publikoek eragile guztiei erantzuten asmatu behar dute, dituzten beharrei erantzun zehatzak eman behar dizkie. Horretarako, zein eragile talderekin ari den jakin beharko du, zeintzuk diren kezka eta behar konkretuak, eta horientzako helburu zehatzak lortzeko prozedurak bideratu.

10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?

Alkate izatera iritsiko banintz, egingo nukeen lehenengo gauza etorkizunerako plangintza komuna egitea izango zen, elkarlanerako ildoak adostea. Denok nahi dugu Elgoibar haztea, helburu komunak ditugu. Horretarako, adostasunean eta elkarlanean aritu behar gara.

JOSE LUIS IBARZABAL - EHBILDU



1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?

Ez da batere erraza oposizioaren lana ikusaraztea, baina pozik gaude eginiko lanarekin eta lortutako emaitzekin. Udal gobernuaren kudeaketaren jarraipen zorrotza egiteaz gain, gure herri programan jasotako lan esparru gehienak garatu ahal izan ditugu, eta horren ondorioz, proposamen asko aurkeztu. Nahiz eta gure proposamen gehienak ez onartu, edota onartu arren behar bezala ez garatu, asko izan dira EHBilduren ekarpenak: Maalako estalpea, auzoetako inbertsio plana, prekaritatearen aurkako planaren hastapenak, hileta zibilaren ordenantza, genero ikuspegia diru-laguntzetan txertatzea, Euskara eta Ongizate sailetako aurrekontuak murriztea ekiditea, etorkinen integrazioa bultzatzeko neurriak...

2. Zein izango da zuen hauteskunde programaren zutabe nagusia?

Guk elgoibartar guztien mesedetan kudeatu nahi dugu Udala. Hori da gure programaren ardatz nagusia, eta egiten ditugun proposamen guztiak bat datoz helburu horrekin. Guztiontzat gobernatzeak eragin zuzena izan behar du garatu nahi dugun udal politikan, eslogan huts batean gera ez dadin. Horregatik, honako hauek izango dira gure kudeaketa eredia zuzenduko duten printzipioak: herritarren parte-hartzea bermatzea eta ahalbidetzea, Udalaren zeregin aktiboa sustatzea, kalitatezko zerbitzu publikoa babestea, zerga politika progresiboa garatzea eta gutxien dutenen mesedetan aritzea.

3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak ezagutzeko, haiei erantzuteko eta parte-hartzea sustatzeko?

Herritarren parte-hartzea benetan sustatu eta bermatu nahi badugu, asko dira landu beharreko esparruak. Lehendabizikoz Udalaren fun-

tzionatzeko era moldatu beharra dago, besteak beste herritarrek esku-
ra izan dezaten euren intereseko izan daitekeen informazio guztia. Lehen urrats hau nahitaezkoa da, gardentasunik gabe partaidetza ezin baita bideratu, baina ez da nahikoa. Ez baditugu eskaintzen parte-hartzea ahalbidetuko duten bideak, alferrik gabilta. Besteak beste, Udalaren batzorde eta plenoak egokitu beharko ditugu herritarrek parte hartzeko aukera izan dezaten, onartutako ordenantzan aurreikusitako egitura finkoak sortu beharko ditugu (Herri Batzarra, Kontseilu Sektorialak, Auzo Batzarrak), lehentasun osoa emango diogu aurrekontu parte-hartzaileen garapenari eta hala erabakitzen denean, prozesu parte-hartzaile zehatzak eta herri kontsultak antolatuko ditugu. Guzti hau legealdi hasieran era partekatuan osatuko den Herri Partaidetzako udal planean jasoko dugu.

4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarrek. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?

Nola ez kezkatu elgoibartar askok pairatzen duten gabeziaren ondorioak pare-parean ikusita!. Zulotik ateratzen ari omen gara, eta hori frogatzen dituzten zenbakiak jartzen dituzte mahai gainean. Hala izan daiteke, baina egungo ekonomia ereduak ez duenean bere lehentasunen artean prekaritatean bizi diren auzokideen alde egitea, Udala ezin da gelditu geratu. Horregatik tokiko garapena sustatzeko egiten dugun proposamenaz gain (foro sozio-ekonomikoa osatu, enplegu planak garatu, sektore ekonomikoen jardura sustatzeko neurriak...) lehentasun osoa emango diegu gaizki pasatzen ari diren elgoibartarrei laguntzeko udal politikari. Horretarako Udalak, gizarte partaidetzarekin batera, eragile aktiboa izan behar du, sortutako egoera berriei erantzun egokiak eskainiz. Ez da nahikoa atea jotzen duenari erantzutea. Pobreziaren aurkako plana garatuko dugu, eta etxebizitza hutsen alokairua sustatu. Udalak ez du etxegabetzeetan parte hartuko, eta aldiz, harreman iraunkorra izango du kaltetuekin bere esku dituen bitartekoak eskainiz.

5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitzeko eskubidea, hein batean Gure Esku Dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzu esateko honen inguruan?

Eragiten diguten guztia gainean erabaki nahi dugu herritarrok. Erabakitzeko eskubidea eskubide pertsonala da, baina baita eskubide kolektiboa ere. Jendartean erabakitzeko eskubidea oso zabaldua dago hemen, baina baita Eskozian edo Katalunian ere. Printzipio demokratikoa den heinean eskubide hori ukatzen jarraitzearen alde ari direnak alferrik ari dira. Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea praktikan jartzea baino ez du falta eta norabide horretan urratsak emateko gehiengo sozial eta politikoak artikulatzea behar dugu orain. Gure Esku Dago bezalako herri mugimenduei esker eraikitzen eta aktibatzen ari da, bai Elgoibarraren, bai Euskal Herriaren, oinarritzeko eskubide demokratiko honen alde dagoen gehiengo zabal hori. Udaletxe eta gainerako instituzioetan ere erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengoak osatzea tokatzen zaigu. Guk gehiengo hori osa dadin lan egingo dugu.



“Haize berria ekartzeko gai den Udala aurreikusi nahi dut”

6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitzarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesua azkartzeko?

Legealdi honetan Foru Aldundiaren laguntza jaso duen bizikidetzeta plana garatu dugu Udaletik. Gure asmoa biktimak eta memoria ardatz dituen planarekin jarraitzea da. Elkarbizitza bultzatzeko neurri eraginkorrak hartzen jarraitzeko apustua egiten dugu. Aurrerapauso sendoak eman behar ditugu biktima guztien aitortza, errespetua eta erreparazioa bermatzeko. Gertatutako guztiaren memoria osoa jasotzeko helburuarekin giza eskubideen urraketa guztiak bilduko dituen datu base bat prestatu nahi dugu. Memoria historikoa berreskuratzea izan behar du plan honen beste ardatzak. Ez nuke bukatu nahi azpimarratu gabe EHBildurentzat jatorri politikoa duen gatazkaren ondorioei dagokienez, biktima eta memoriaz gain, egun indarrean diren zigor eta espetxe politika eta iheslarien itzulera ere jorratu beharreko arloak ditugula.

7. Euskarak eta euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendetan?

Euskara Elgoibarren ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izatea lortu nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa zaigu hizkuntza bat menderatzeko ditugun hiru zutabe nagusietan eragitea: motibazioa, ezagutza eta erabilpena. Proposatzen ditugun neurri guztiak (Euskaldun izatearen kontzientzia eta euskaraz bizitzeko nahia elikatze sentsibilizazio ekintzak, euskalduntzeko planak, erabilpena bultzatzeko neurriak...) eskema horretan txertatzen dira, beti ere elkarlanaren ondorio gisa.

Kultura arloan, pozten gara EAJk Aita Agirre Kultur Gunea egiteko proposamena aintzat hartu duelako, baina hainbeste diru inbertituko denean, kultura arloko egitasmo osoa adosteko ez aprobetxatzeak kezkatzen gaitu. Guk garbi dugu proiektua ezin dela mugatu herriko elkarrekin azpiegitura berri birkolokatzera. Aita Agirre Kultur Guneak Herriko Kultura egitasmo berri baten ardatza izan behar du. Eta egitasmo hori herriko sortzaile eta eragile guztiak batera diseinatuko dugu, kultura, gizarte zein tokiko garapenaren arloko helburuak adosteko, udal azpiegitura guztien mapa egokia osatzeko eta gure sortzaileen lanak sustatzeko eta plazaratzeko programak eraikitzeko. Hitz gutxitan izaera estrategikoa izango duen herri proiektua da bultzatu nahi duguna. Horrelako plangintzarik gabe zaila da horrelako inbertsioa justifikatzea.

8. Nolako udal gobernua aurreikusten duzu?

Ez dut ezer berriak adieraziko gure herri honetan bi aukera baino ez

daudela esaten badut: PNVk ordezkatzeko duena eta gurea. Bukatze-er dagoen legealdi honek zerbait erakutsi badigu da ohituraren poderioz kudeatutako lau urte izan direla. Agindutakoa bete gabe utzi eta bide edo ideia berriak jorratu ez dituen. Agortuta dagoen ereduak da PNVk ordezkatzeko duena. Horregatik aurreikusi nahi dut haize berriak ekartzeko gai izango den Udala. Ilusioa piztuko duena herritarren artean eta guztiontzat eta guztiak gobernatzeko gai izango dena.

9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?

Esan beharrik ez dago herrigintzan diharduten eragileen parte-hartzerik gabe ezinezkoa egingo zitzagula gure udal kudeaketa ereduak garatzea, baina modu asko daude eragileen parte-hartzea ahalbidetzeko edo hartueman horiek bideratzeko. Gure apustua garbia da. Lana egingo dugu Udalaren eta elkarrekin arteko harremanak sistemati-koak eta iraunkorrak izan daitezzen. Harreman horiek ezin dira alde biko harremanetara mugatu; batez ere lan esparru bakoitza saretzeko eta elkarlana balorean jartzeko balio behar dute. Sortuko ditugun batzar, kontseilu, foro edo mahaiak proiektu berrien sorkuntza-guneak izan behar dira, eta ez bakarrik egungo beharrei erantzuteko espazioak. Udalak herri dinamiken sustatzaile aktiboa izan behar du, proiektuak landuz, harremanak sustatuz, bitarteko egokiak eskainiz...

10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?

Aurrenekoa ez dakit, baina aurrenekoen artean honako hiru hauek egongo lirakeela seguru nago: 1- Udaleko hautetsien ordainsariak jaisteko proposamena prestatu legealdiaren lehen plenoan onartu dadin. 2- Udal langile guztiak bildu gure asmoen berri emateko eta beren egoera zehatza ezagutzeko. Elkarlana etxetik hasi behar da, eta ez zaigu ahaztu behar udal langileen inplikazioa nahitaezkoa dela kalitatezko udal zerbitzu publikoa bermatzeko. 3- Abian jarri udal kudeaketan eragin zuzena izango dituzten neurriak: batzorde berrien eraketa; Udal jardunerako gardentasun protokoloa, herritarren partaidetza bideratzeko Herri Partaidetzako udal plana...

“Ilusioa piztuko duen Udala nahi dugu, guztiontzat eta guztiak gobernatzeko gai izango dena”

NEREA ALUSTIZA - PSE-EE



1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?

Guretzat bazen gai bat oso garrantzitsua, eta hori bete dugu: Pizarreko eskola botatzea, nagusientzako zentro gerontologikoa eraikitzeak. Hori egitea lortu dugu behintzat.

2. Zein izango da zuen hauteskunde programaren zutabe nagusia?

Elgoibarko gaur egungo errealitatea ikusi eta gero, bereziki Ongizate zerbitzuak hobetzen saiatu behar dugula uste dut. Alde batetik, gaur egungo programa guztiak mantendu nahi ditugu, eta bestetik, laguntza berriak gehitu. Etxean ezinduak dituzten familiei laguntzen saiatuko gara, bai laguntza psikologikoa emanez eta baita larri dabiltzanei laguntza ekonomikoa emanez ere. Etxebizi-

tza alorrean laguntzak jarriko ditugu etxeak zaharberritzeko, bai kanpotik (igogailua, fatxadak, teilatuak...) eta baita barrutik ere. Horrez gain, bizilagunen adinaren arabera, neurri bereziak hartuko ditugu: 80 urte baino gehiagoko pertsonak bizi diren egurrezko etxeetan eta baserrietan suteen aurkako detektoreak jarriko ditugu. Ekonomiari dagokionean, larri dabiltzan familiei IBI zerga jaitsi eta epeka ordaintzeko aukera emango diegu. Alokairua sustatuko dugu, etxe asko daudelako itxita eta jende askok (gazteak, atzerritarrak...) daukalako etxea alokatzeko interesa. Alokairu-politika sortu nahi dugu.

3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak eza-gutzeko, haiei erantzuteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko?

Egutegi bat antolatu behar da sasoiz biltzeko jendearekin, eta udaleko lokaletan euren kontsultak eta eskaerak entzuteko. Mendiko auzoetan, berriz, eurek dituzten lokaletan jasoko ditugu bizilagunen eskaerak. Eskaerak jaso, erantzunak eman, eta ahalegin-du euren eskaerei bide ematen.

4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarrak. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?

Ekonomia eta enpleguari dagokionez egingo dugun lehenengo lana Elgoibarko egoera aztertzea izango da: langabezia portzentaia eza-gutuko dugu, adinaren arabera, sexuaren arabera, sektoreen arabera... Ikusiko dugu zeintzuk diren larrien daudenak ea zeintzuk hobeto daudenak, eta datu horiekin, irtenbideak aurkitzeko mahai bat sortuko dugu ondorengo eragileekin: Elgoibarko Udala, IMH, eragile industrialak, Debegesa, Lanbide, INEM, eta Adegia eta Spiren aholkularitzarekin. Modu horretara jakingo dugu zein mota-tako lanpostuetarako prestatu behar dugun jendea. Horren harira, kale-ortuak sortuko genituzke, hasiera batean langabezia dauden pertsonentzako, haiek direlako premia handiena dutenak.

5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitze eskubidea, hein batean Gure Esku dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzu esateko honen inguruan?

Ondo dagoela hainbat ahalegin egitea gizarte eskubiden alde, baina oraindik bideak badauka nondik jorratu, eta hori ematen ez den bitartean, denok egoteko zati bat falta dela iruditzen zait.

6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitzarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesu hori azkartzeko?



“Berdintasunean oinarritutako Elgoibar bat eraiki nahi nuke”

Ba, aurreko galderarekin lotuta, denok joan behar dugu bide beretik, eta gai honek badauka nondik joan.

7. Euskarak eta euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendatan?

Elgoibarko Udalak ia alor guztietan erabiltzen du euskara. Guk, adibidez ia batzorde guztietan, osoko bilkuretan barne, euskaraz egiten dugu. Gero kalean giroa denetarikoa da, baina nire ustez, Elgoibarko euskara maila nahiko ona da, beste leku batzuekin konparatzen badugu behintzat. Kanpotarrei begira, indar handiagoa egin beharko genuke haiek euskarara ekartzeko, bai eskolen bidez, guraso elkarteen bidez, Udalaren programen bidez eta beste hainbat ekintza-aren bidz. Ez nuke nahi euskara bazter batean zokoratuta gelditzerik. Eta euskal kulturari dagokionean, ahal dugun neurrian egiten dugu sustatzeko ahalegina. Gure historia lantzen eta aztertzen dihardugu, guretzat oso inportantea delako.

8. Nolako udal gobernua aurreikusten duzu?

Ba egia esan, ez dakit zer gertatuko den. Inkesta asko egin dira, eta badirudi azkeneko hauteskondeekin konparatuz gero gauzak ez direla aldatuko. Elgoibarren EAJK irabazi du beti.

9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?

Ba hasieratik harreman estua eduki behar da haiekin. Bide bere-

“Alokairua sustatuko dugu, etxe asko daudelako itxita eta jende askok daukalako etxea alokatzeko interesa”

“Ez nuke nahi euskara bazter batean zokoratuta gelditzerik”

an lan eginez gero, ondo joango da dena, baina kontra egiten badute, ez dago nondik hartu. Azkenean, herriko jendea da irabazi edo galtzen duena.

10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?

Elgoibar Ingurumen herria izendatuko nuke. Alde batetik, oso errespetuzkoa izan behar da neurriekin, eta neurri horien arabera herritarrei erakutsi, eta behar denetan, betetzera behartu: zaborra birziklatu egin behar da ahal den neurrian, txakurrak lotuta eraman behar dira eta euren hondakinak jasotzea derrigorrezkoa da. Mendiak zaindu behar dira. Egoera larrian dauden familiei IBI jaitsi eta epeka ordaintzeko aukera emango nieke, udaletxeko dokumentuak (udal errolda...) eskuratzeko zerga kenduko nuke... Horrez gain, artxibo arduradunaren udal lanpostua aterako nuke lehiaketara, azkenaldian artxiboa apur bat ahaztuta dagoelako. Informazio panelak jarriko nituzke auzo guztietan, eta ahalegin berezia egingo nuke etxe hutsak alokairuan jartzeko. Gazteak euren kabuz bizitzeko gogoz daude eta lagundu egin behar diegu. Kanpotarrak ere prest daude etxebizitzak alokairuan hartze-

ko, beraz, Etxebizitzaren Bankua sortuko nuke. Era berean, ekonomia eta lan mundua sustatuko nituzke. Kultur alorrean, kultur ondasunerako mahaia sortu behar da, Elgoibarko ondasun kulturala, materiala eta inmateriala babesteko. Kale-ortuak ere sortuko nituzke.

Ikastaroak eskaini behar dira jende guztiarentzat, herritarren arteko harremana sustatu behar da, denon artean eta disziplina desberdinetan: sukaldari gazteentzat, etxeko lan bereziak, adibidez elektrizitatea, defentsa pertsonala, dantza, jostungintza, esku lanak... Azken batean, berdintasunean oinarritutako Elgoibar bat eraiki nahi nuke.

SOFIA VAZQUEZ - PP



1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?

Gu ez gara gobernu batzordean egon, baina hala ere egin ditugu gure proposamenak (jangelarako bekak, eskola-liburuak erosteko diru-laguntzak, gardentasun handiagoa...). Gainera, defendatu ditugu gure proposamenak batzorde ezberdinetan, eta horregatik balorazio positiboa egiten dugu hartutako konpromisoen gainean. Udal Gobernuak aintzat har-

“Udal gobernuak aintzat hartu ez bagaitu ere, tinko babestu ditugu gure proposamenak”

tu ez bagaitu ere, tinko babestu ditugu gure proposamenak, eta halaxe egiten jarraituko dugu aurrerantzean ere.

2. Zein izango da zuen hauteskunde programaren zutabe nagusia?

Bukatu gabe utzitako lanak bukatzea. Urte hauetan EAJK proiektu asko saldu ditu, eta gero kajo batean lo gelditu dira. Eta guk proiektu horiek egi bihurtzea nahi dugu. Pilarreko proiektua, Aita Agirrekoa eta herrian kirol instalakuntza berria sortzeko proiektuak errealitate egin nahi ditugu.

3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak ezagutzeko, haiei erantzuteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko?

Herritarren parte-hartzea herritarren ekarpenak ezagutzeko erreminta izatea nahi dugu, baina herritar guztien ekarpenak ezagutzeko, ez batzuenak bakarrik. Orain arte egin diren proiektuek ez gaituzte asebeste eta horregatik ez dugu parte hartu edo ez digute parte hartzen utzi. Ez dugulako nahi herritarren parte-hartzea helburu jakin batekin edo interes alderdikoi batzuekin sustatutakoa izatea. Hori ez da guk defendatzen dugun parte-hartze erdua.

4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarrak. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?

Langabezia-tasa murrizteko neurriak bultzatu nahi ditugu, baina ikusiko bagenu guk proposatutako neurri horietakoren batek ez duela emaitzarik ematen berehala baztertu beharko genuke eta berri bat sortu. Ezin dugu orain arte bezala jarraitu. Hau da, ezin duguna egin da Gobernuak proposatutako neurriek emaitzarik eman ez dutela ikusi eta langabezia tasak gora egiten jarrai dezan utzi. Orain arteko neurriek ez dute balio izan langabe kopurua murrizteko, baizik eta jende jakin bati mesede egiteko. Elgoibartarrak kontrata ditzaten nahi dugu, enplegu-planak gara daitezten eta Udalak baliabideak jartzea lanik gabe dauden elgoibartarrak kontratatzeko.

5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitze eskubidea, hein batean Gure Esku dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzu esateko honen inguruan?



“Agindu politikoei lotuta egongo ez den udal gobernu bat nahiko nuke”

Maiatzaren 24an egikarituko da erabakitzekeo eskubidea. Egun horretan zeinek ordezkatzeko dituen erabakiko dute elgoibartarrek. Eta guk errespetatuko dugu herritarren borondatea, edozein dela ere. Beste batzuk eskatzen ari direna independentzia da. Erabakitzekeo eskubidea eskatzen ari direla esanez ari dira herritarrak engainatzen, eta guk ez dugu horrekin bat egiten. Elgoibartarrentzat askoz arazo garrantzitsuagoak direnak konpontzeko gaude gu: langabezia, aukera falta, gazteek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten trabak, herritarrentzako gizarte zerbitzuetan dauden gabeziak, adinekoentzako arreta... Horiek dira interesatzen zaizkigun gaiak.

6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitzarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesu hori azkartzeko?

ETAk egin duena gaitzetsi ez dutenek gaitzetsi dezatela. Ezin da hemen ezer gertatu ez dela sinestarazten ibili. Jendeak oraindik ere beldurra du pentsatzen duena esateko, eta ETA gaitzesten ez duten horiek, ETAr jokoak jarraitzen dioten horiek, asko egin dezakete beldur hori amaitzeko. PPkoa edo PSOEkoa izateagatik jendeak duen beldur hori galtzen den egunean ekingo diogu lanari eta hasiko gara elkarbizitzaz hitz egiten. PPTik gertu sentitzen direnen iritziak jasotzen ez dituen bake plana ez doa inora.

7. Euskarak eta euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendetan?

Leku nabarmena, beti ere zenbaitzuk euskara elkarri erasotzeko arma-

“Urte hauetan EAJk proiektu asko saldu ditu eta gero kajo batean lo gelditu dira”

“PPkoa edo PSOEkoa izateagatik jendeak duen beldur hori galtzen den egunean ekingo diogu lanari”

tzat erabiltzeari uzten diotenean. Euskara denona da eta denontzat. Guk kultura aniztasuna nahi dugu, kultura parte-hartzailea, eta ez batzuk alde batera utziko dituen kultur eredu

8. Nolako udal gobernu aurreikusten duzu?

Agindu politikoei lotuta egongo ez den udal gobernu bat nahiko nuke. Bakar-bakarrik Elgoibarren onerako eta elgoibartarren onerako lan egingo duen udal gobernu. Zoritxarrez, baina, batzuk ez daude horretarako prestatuta.

9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?

Elgoibarrek elkarte eta eragile sare handia dauka, eta guk haien alde egin nahi dugu apustu. Udalaren babesa senti dezatela nahi dugu eta Elgoibari eta elgoibartarrei eskaintzen diotenagatik baloratuak izatea, eta ez euren ideologia politikoagatik.

10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?

Alkate izatera iritsiko banintz lehenengo eta behin kontu-ikuskaritza bat egingo nuke Udalaren diru-kontuak garbi dauden egiaztaitzeko. Elgoibartarrei jakinaraziko nizkieke gero datu horiek guztiak gure agintaldia bukatzen den egunean egin duguna agindu dugunarekin bat datorrela egiazta dezaten. Eta burubelari hasiko nintzateke lanean, agindutako konpromisoak betetzeko.

Titan Deserten parte hartu du Igor Iraolagoitiak, sei egunez Marokoko basarmotuan mendi bizikletaz egiten den proban

‘Basamortura eskuzabal’ proiektu solidarioaren barruan joan da

Titan Desert proba entzutetsua bukatu berri du Marokon Igor Iraolagoitia mendaroarrak [Ezkerretik hasita laugarrena da argazkian]. Sei egunez Marokoko basarmotuan mendi bizikletaz egiten den muturreko lasterketa da Titan Desert. Apirilaren 27an hasi zen lasterketa eta maiatzaren 2an bukatu zuten, eta sei egunetan 600 kilometro egin behar izan dituzte parte hartzaileek bizikletaz. Proiektu solidario baten barruan joan da Iraolagoitia Marokora, *Basamortura eskuzabal* proiektuaren barruan, hain justu ere. Ander Txakartegi berriatuarraren ekimenez hasi zen taldetxo bat elkartzen, eta azkenerako sei lagun elkartu ziren: Ander Txakartegi bera, Txomin eta Iñigo Bustindui (Ondarroa) Xabat Arrate (Markina-Xemein), Eneko Barrota (Iurreta) eta Igor bera. Muturreko bizikleta lasterketa honetan parte hartzeaz gain, inguru hartara laguntza bidaltzeko baliatu dute bidaia. 6.000 euro baino gehiago batu dituzte sendagai eta arropetan, han eta hemen



egin dituzten ekintzen bidez. Iurretako Amatorbe elkartearen bidez egin dute laguntza solidarioa bideratzeko lana. Amatorbe kirola eta elkartasuna uztartzen dituen elkarte da, eta 2012an sortu zuten, Panda Raid auto proba solidarioan parte hartzeko.

Areto futboleko kadeteen taldea Gipuzkoako txapelketako igoera faserako sailkatu da



Areto futboleko Sukia kadeteen taldeak lehenengo postuan bukatu du Gipuzkoako txapelketako lehen fasea eta igoera fasea jokatzeko sailkatu da. Igoera faseko lehen finalaurrekoa Eibarko Unibertsitate Laboralean jokatu dute elgoibartarrek Zarauzko taldearen kontra, igandean, 11:30ean. Bigarren finalaurrekoa Eskoriatzan jokatu da Arizmendi eta Las Korain taldeen artean. Finala, berriz, maiatzaren 16an jokatu da, Donostian.

Debabarrenako Futbol 7 txapelketan izena emateko epea, zabalik

Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatzen duten XVIII. Bailarako Futbol 7 Txapelketako izenemate epea irekita dago maiatzaren 22ra arte. 1999. urtean edo lehenago jaiotako gazteek parte hartu dezakete txapelketan. Hogei taldek eman dezakete izena, 80 eurora ordainduta. Olaizaga kiroldegian edo Ipurua kiroldegian eman daiteke izena. Txapelketa maiatzaren 30ean hasiko da, eta uztailaren 22an bukatuko da.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL: 943 744 457
ELGOIBAR
www.colchoneriagalgunak.com

**Orain bai ez duzula
koltxoiz ez aldatzeko aitzakiarik!**

**Lagunak Koltxoi-dendan aurkituko duzu zurea,
hilean 9,50 eurogatik**








Sanloko hamahiru jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin jokatu dute

Txarriduna eta Ikus taldeak, Gipuzkoako finalerdietan



Jubenilek Ermuan jokatu zuten.

Joan den asteburuan Lurraldeetako Eskubaloi txapelketak jokatu zituzten jubenilek eta kadeteek, eta Sanloko hamahiru jokalarik konbokatuta zituzten Gipuzkoako selekzioekin jokatzeko. Jubeniletan Alaitz Egaña, Amaia Rubio eta Maialen Loilak jokatu zuten, eta Gipuzkoako selekzioa bigarren geratu zen. Mutileatn, Alejandro Beraza eta Eneko Rubio deitu zituen hautatzaileak, eta hauek ere bigarren lekuan amaitu zuten txapelketa. Ainhoa Rodriguez, Ane Kortaberria eta June Loidik kadeteekin jokatu zuten, eta hirugarren lekuan sailkatu ziren. Azkenik, kadete mutiletan, Ibai Perez, Iñigo Elustondo, Jon Ortega, Kimetz Bergaretxe eta Oscar Gonzalez deitu zituzten, eta txapelketa irabazi zuten.

Infantilak finalerdietan

Liga txapelketak azken txanpara iristen ari dira, eta Sanloko taldeak hasi dira dagoneko lehenengo lorpenak eskuratzen. Txarriduna infantil mutilak eta Ikus infantil neskek Gipuzkoako txapelketako finalerdietarako sailkatu dira.

Hamar bikoterekin hasi da nesken pala txapelketa



Apirilaren 27an hasi zen binakako nesken pala txapelketa, eta ekainaren 19an jokatuko dute finala. Partidak Kalegoen plazan jokatuko dira, eta euria egiten badu, Ikastolan. Aurten, hamar bikotek eman dute izena. Irabazleek garaikurra eta txapela jasoko dituzte.

EMAITZAK

FUTBOLA

Aretxabaleta 1 – Haundi 0 (Pref.)

Elgoibar 0 – Zarautz 0 (Erreg.)

Elgoibar 1 – Ilintxa 1 (Jub.)

Anaitasuna 2 – Elgoibar 5 (Kad. A)

Elgoibar 6 – Arizmendi 1 (Kad. B)

Herrera 2 – Elgoibar 3 (Lehen inf.)

Antzuola 5 – Ilintxa 1 (Inf. Txiki)

ESKUBALOA

Lauko Elg. 33 – Aiala 16 (Sen. nesk.)

Uharte 26 – Alkorta Elg. 26 (Sen. mut.)

Gabaz Elg. 22 – Haritza Eibar 23 (Sen. mut.)

Beristain Elg. 19 – Bidasoa 30 (Jub. mut.)

Pneumax Elg. 14 – Egia 20 (Jub. nesk.)

Bidasoa 31 – Deca Elg. 26 (Kad. mut.)

Txarriduna Elg. 29 – Tolosa 19 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9

11:30 Elgoibar – Hondarribi (Inf.)

13:15 Elgoibar – Zarautz (Kad. A)

17:00 Haundi – Touring (Pref.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 9

10:00 San Roke Elg. – Aiala D (Inf. nesk.)

11:15 Deca Elg. – Corazonistas (Kad. mut.)

13:00 Tecnifuelle Elg. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)

19:45 Alkorta Elg. – Hondarribi (Sen. mut.)

Domeka, 10

10:00 Ikus Elg. – Udarregi (Inf. nesk.)

11:15 Murgil Elg. – Bera Bera (Inf. mut.)

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka.
☎ **631 124 942**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Premiazkoa.
☎ **688 682 398**
- Mutila eskaintzen da arotz lanetarako, garbiketak egiteko, sukaldari laguntzaile edo banaketa lanetarako. Gidabaimenarekin.
☎ **698 451 205**
- Neska eskaintzen da garbiketala lanetarako edo umeak zein nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna.
☎ **631 834 241**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zein umeak zaintzen ditut eta baita garbiketala lanak egin ere.
☎ **620 258 708**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat.
☎ **686 077 564**
- Adinekoak zaintzen ditut, gauez nahiz arratsalde, orduka. Portalak garbitzen ere egingo nuke lan. Gidabaimena daukat.
☎ **631 343 232**
- Emakumeak adinekoak zaintzen lan egingo luke.
☎ **632 280 215**
- Neska eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
☎ **943 748 899 / 685 724 861**

- Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat haur eta nerabeekin. Behar bereziak dituzten umeekin lan egiteko espezializazioa daukat. ☎ **688 639 371**
- Grua operadore, igogailudun karretilarekin edo garbiketala industrian lan egingo nuke. Esperientzia. Gidabaimena dut.
☎ **666 836 789**

ESKAITZA

- Asteburu eta jai egunetan Elgoibarren lan egiteko neska behar da. Premiazkoa. 25-35 urte artekoa, euskaraz ondo hitz egitea derrigorrezkoa. elgoibarcv@hotmail.com

ETXEBIZITZAK

- Pisu eguzkitsua eta berritua alokatzen dut Santa Klaran igogailuarekin. 3 logela, egongela, komuna, balkoia.
☎ **653 863 482 (20:00-22:00)**
- Apartamentua alokatzen dut Errosario kalean. Berritua, altzariekin.
☎ **653 863 482 (20:00-22:00)**
- Duplexa salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Negoziagarria.
☎ **660 055 692**

KINTOAK

- 1949an jaiotako kinto bazkaria, ekainaren 13an, Sigman. 12:30ean

argazkia elizako arkupean eta gero luntxa Ibai Ondo erretegian. 50 euro sartu behar dira Caixan: 2160 4168 74 2100298970. Izena emateko azken eguna ekainaren 6a.

- 1955ean jaio eta aurten 60 urte egingo dituztenen bazkaria ekainaren 6an, Sigman. 12:00etan Maalako elizan meza, gero argazkia eta luntxa Txaridun. 60 euro sartu behar dira Laboral Kutxan: 3035 0007 25 0071116963.

☎ **627 760 248 (Manu Konde)**

- 1946ko kintoek Iruñeara txangoa egingo dute maiatzaren 16an. Autobusa 9:30ean Txankakuan. 60 euro Kutxa: 2095 5036 50 9114932502. Azken eguna, maiatzak 14.

- 50 urtekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an, Sigman. 11:45 plazan elkartuko dira. 12:00etan, meza, 12:15ean argazkia bolatokian, eta segidan luntxa, Zubi Ondo elkarte. 14:30 bazkaria. 69 euro sartu behar dira Bankoan: 0138 0020 11 0010695759.

☎ **650 725 977 (Pili) ♪ / 656 743 975 (Izaskun)**

- 1950ekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an. 12:00etan meza Santa Klaran, gero argazkia. 13:00 luntxa Gure Bidean, 14:00etan autobusa Maalan. Bazkaria 14:30 Loiola hotel. 80 euro sartu: 2095 5036 50 9114870189. ☎ **670 271 370 (Koldo) / 616 556 890 (Anton)**

- 1943koen kinto bazkaria, maiatzaren 16an, Sigman. 50 euro sartu,

Laboral Kutxan: 3035 0007 25 0071130756. Azken eguna: maiatzak 13. 13:00etan Tantikan luntxa. 13:45: argazkia. 14:00: meza Parrokian. 14:30: bazkaria.

- Elgoibarren 1960an jaiotako kinto bazkaria antolatu dugu. Ekainaren 6an izango da Txariduna jatekian. Parte hartu nahi duenak 60 euro sartu behar ditu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468. Azken eguna, maiatzak 5.

- 53ko kintoen bazkaria apirilaren 25ean. 12:30ean meza Maalan, 14:30ean bazkaria Txaridun. 40 euro. Castrillejo estankotan eman izena hilaren 22rako.

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen da Jausoro plazan.
☎ **699 812 566**

BESTELAKOAK

- Katuak oparitzen ditut.
☎ **672 153 042**
- Katuak oparitzen ditut.
☎ **943 743 975 / 606 081 323**
- Betaurrekoak galdu nituen maiatzaren 4an San Bartolome kalea eta Mintxeta artean. Estutxe beltza, letra gorriekin.
☎ **619 121 332**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Etxebizitza baten jabea naiz, eta azalera eraikineko etxerik handiena izan ez arren, parte-hartze kuotarik handiena daukat. Dokumentazioa aztertzen jardun dugu eta konturatu gara obra berraren deklarazio-eskritura eta solairukako banaketa egiterakoan akats bat egon zela nire etxeari eta beste bi etxeri dagozkien parte-hartze kuotak zehazterakoan. Etxejabeen batzarrean akordio batera iritsi gara kaltetuok, baina konpondu nahi dugu egoera hau eta notaritzako eta erregistroko gastuak handiak dira. Nor da egoera honen erantzulea?

Berez, solairukako banaketaren eskrituran parte-hartze kuotak zehaztea etxe sustatzaileari dagokio, eraikinaren jabe bakarra den heinean. Fase horretan, etxejabeen komunitatea egituratu gabe egoten da, eta ondorioz, ezin du bakoitzari dagokion parte-hartze kuotarik zehaztu. Beraz, etxejabeen komunitateak ez dauka inolako erantzukizunik gai horretan.

Zaila izango da notaritzari erantzukizuna eskatzea, bere esku-hartzea fede emaille publikoaren lana egitera mugatzen delako, bestelakorik probatzen ez den bitartean behintzat. Zaila dago, era berean, arkitektoari kontu hartzea ere, etxe sustatzailearen aginduak betetzera mugatzen delako. Dena den, kasuan kasu aztertu beharko litzateke.

AHOLKUA: Etxe sustatzaileari dagokio kaltetuei kalte-ordainak ordaintzea. Bere gain hartu beharko ditu eragindako kalteak eta baita ere edozein aldaketa edo zuzenketa egiteak berariaz dakartzan gastuak, beti ere egindako hanka-sartzea agerikoa denean.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Ane**, urte-txo bat bete duzulako. Patxo handi bat, etxe-koen partez.



• Zorionak, **Unax**, 7 urte egin dituzulako! Muxu handi bat etxe-koen partez, eta batez ere, Oierren partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure laugarren urtebetzean. Etxeko-koen partez.



• Zorionak **Saioa** printzesatxoari 7 urte bete-tzean. Patxo handi bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Manex!** Etzi zure lehen jaunartzea eta astelehenean zure urtebetetzea ospatuko ditugu. Bihotz-bihotzez, Asunek.



• Zorionak, **Malen**, 10 urte egingo dituzulako. Familiako-koen partez.



• Zorionak, **Ibon!** Hiru besarkada eta muxu potolo bat etxeko guztien partez. Ondo-ondo pasa igandean.



• Zorionak, **Martin**, hila-ren 1ean urte-txo bat bete zenuelako. Jarraitu horren alai! Muxu bat denon partez, bereziki Intzaren partez.



• Zorionak, **Jon**, maiatza-ren 3an 4 urte bete zenuelako. Patxo handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **June**, maiatza-ren 5ean urte-txo bat bete zenuelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Josune eta Agustin**, segi horrela urte askoan! Ondo pasa zuen eguna, senide guztien partetik.



• Zorionak, **Julen eta Paula**, zuen urtebetetzean. Martinen partez, muxu handi bana.



• 4 urte bete ditu. Kanta diezaio-gun: "Zorionak zuri, Oier!"



• Zorionak, **Sare eta Beñat**, zuen seigarraren eta hamagarraren urtebetetzean. Patxo handi bana familiako-koen partez.



• Zorionak **Maren** eta **June** zuen 10. eta 13. urtebetetze egunean. Patxo handi bana etxe-ko-koen partez.

ELGOIBARTARROK

garaile!

ARGAZKI

ERRALDOIA

Maiatzak

9

12:30 Elgoibarko
Kalegoen plazan

EMAN BOTOA

ehbildu

8 barixakua

Erakusketa

18:30 'Bame logika'

Ongarri argazki taldeak antolatuta, Carmen Hierroren artelanak jarriko dituzte ikusgai, Kultur Etxean. Hilaren 23ra arte egongo da ikusgai.

Aisialdia

17:30 Kiribil

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

Bideo forum

21:30 'La buena estrella'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

9 zapatua

Erakusketa

11:00 Maalako gaztetxea

1991ko maiatzaren 9an bota zuten Maalako gaztetxea eta haren oroimenezko argazki erakusketa egingo dute Maalan.

Herritarren argazkia

12:00 EHBlidu

Hauteskunde kanpainako argazkia aterako dute, Kalegoen plazan.

10 domeka

Musika

12:30 Udal musika bandaren kontzertua

Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika.

Euskal Eskola Publikoaren jaiaren barruan kokatzen da kontzertu hau.

Egitaraua:

1. *Intocht der gladiatoren* (J. Fucik).
2. *Peru eta otsoa* (S. Prokofiek).
3. *Trisch - Trasch* (J. Strauss).
4. *Idazteko makina* (L. Anderson).
5. *The pink panther* (H. Mancini).
6. *Guk euskaraz* (Urko Urkizu).

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
8 Barrenetxea 9 Ibañez 10 Ibañez 11 Garitaonandia 12 Etxeberria 13 Fernandez 14 Yudego 15 Oruesagasti	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Perdiendo el norte»

8, barixakua: 21:30

9, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

10, domeka: 19:00

11, astelehena: 21:30

**Mari Jose
Ruiz Porres**

Doktorea

GINEKOLOGOA

mj.ruizporres@gmail.com



Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857

**Zu zaintzeko zerbitzu onena eskaintzeaz gain,
profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu
atseginari eusten jarraituko dugu.**



III. URTEURRENA

ANGEL MARI ARREGI CANO

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

“Enarak bueltau dittuk eta hire izena ekarri juek mokoetan”

Koadrilako lagunak



III. URTEURRENA

ANGEL MARI ARREGI CANO



2012ko maiatzaren 11n hil zen

*Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.*

Familiakoak



III. URTEURRENA

ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA



2012ko maiatzaren 7an hil zen.

*Gure ondotik joan zinela
bi urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre ta alaitasunaz
gogoan bizi gera gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.*

Familiakoak



III. URTEURRENA

ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA



2012ko maiatzaren 7an hil zen
Elgoibarren

*Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza buruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
koadrilako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan*

Koadrilako lagunak



Udal eta Foru hauteskundeak



**Zuzeneko
elkarrizketa
digitalak**


**Elgoibarko
eta
Mendaroko
alkategaiekin**

B

BARREN

Aurrez galderak bidaltzeko aukera dago

barren@elgoibarkoizarra.eus



ENJOY SUMMER

hur eta
gazteentzako

INGELES
FRANTSESA
ALEMANA
ITALIERA
THINERA

**JOLASEN BITARTEZ
DIBERTITZEN ZAREN BITARTEAN,
IKASI INGELESA ELGOIBARREN.**



5 urtetik aurrera, ekainaren 22tik uztaillaren 30era (Aukera, 3-4-5 edo 6 aste oso). Goizeko 10:00etatik 13:00etara. Ingelesa modu naturalean ikasiz, aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanen bitartez.

Azkue Auzoa 1 (IMH)
Uparitzaga, 12 behea
ELGOIBAR Gipuzkoa
T. 943 744 040 E. ils@ils.es
www.ils.es



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



IKASTURTERAKO
MATRIKULA IREKIA

2015/2016